

ITZALITAKO KALABAZEN BERPIZTEA: ARIMEN GAU, HALLOWEEN ETA GAU BELTZAREN HAUR-OSPAKIZUNEN IKERKETA ETNOGRAFIKOA

Josu Ozaita Azpiroz eta Jaime Altuna Ramírez
Eibarko Udala eta UEU, 186 or.
Bilbo, 2018

Urriaren 31ko gaua, azaroaren 1eko bezpera, Arimen gaua, Gau Beltza, Halloween, Domu Santuko bezpera... Hamaika izen dituen gaua da urriaren 31koa. Horrela adierazten dute Jaime Altuna eta Josu Ozaita antropologoek *Itzalitako kalabazen berpiztea: Arimen Gau, Halloween eta Gau Beltzaren haur-ospakizunen ikerketa etnografikoa* liburuan. Ikerketa etnografikoa oinarri du liburuak eta Eibarko Udalak eta Udako Euskal Unibertsitateak finantzatu dute lana, 2015eko Juan San Martin Bekaren bidez.



1. irudia. *Itzalitako kalabazen berpiztea. Arimen Gau, Halloween eta Gau Beltzaren haur-ospakizunen ikerketa etnografikoa* argitalpenaren azala.

«Zer gertatzen da urriaren 31 iluntzean?» galderari erantzun nahi diote autoreek. Urriaren 31ko gauean Euskal Herrian ospatu eta ospatzen diren festen inguruko analisia egiten dute egileek, festa zaharretatik hasita egun sortzen ari diren festa berrietara. Gau horren hiru izen eta ospakizun mota bereizten dituzte autoreek: Arimen edo Arima Gaua, Halloween eta Gau Beltza. Hiru jai horiek aztertuko dituzte eremu ezberdinetan. Lehenengoan, Arimen Gauean, arimek dute protagonismoa, eta Euskal Herrian garai batean kalabaza eta beste ortuari batzuk apaintzearen

ohiturarekin lotzen da. Bigarreanean, Halloween, aldiz, Estatu Batuetako jaia da. Hedabideetan presentzia nabarmena du, eta horrek eragina izan du gure testuinguruan. Hirugarreanean, Gau Beltzean gauari eta iluntasunari garrantzia ematen zaie. Arimen Gauaren antzeko ezaugarriak ditu eta elementu mitologikoekin lotzen da. Azken urteetan festa hau zabaltzen ari da. Hiru festa horiek dira nagusi Euskal Herrian.

Ikerketa hau osatzeko Euskal Herriko hainbat herritan (Elgeta, Eibar, Mutriku, Donostia, Iruñea, Lekeitio...) behaketa parte-hartzaileak, elkarrizketak eta talde-egtabaidak burutu dituzte. Datu-bilketa hori aurrera eramateko hainbat lagunen borondatezko laguntza jaso dute egileek, «antropologia auzolanean» esperimentua, haien hitzetan. Metodologia original horren bidez, hainbat antropologo eta kide izan dituzte bidelagun eta ekarpenak egin dizkiote datu-bilketari.

Behin ardatz metodologikoa eta festen izendapenak argituta, atzerako begirada batekin hasten da lana. Arima biziak aztertzen dituzte XX. mendearen erdialdean. Horretarako, Euskal Herriko hamaika txokotatik jasotzen dituzte 70-90 urte bitarteko pertsonen ahotsak. Narrazio horietan azaltzen da Arimen Gaua nola ospatzen zen eremu geografiko ezberdinetan. Nahiz eta hizlari gehienak laurogei urteren bueltan egon, haurtzarokoak dira festaren berri ematen duten oroitzapenak. Ahotsek gogoratzen dute kuiak, arbiak, erremolatxak edota patatak hustu, zuloak egin eta kandelaz betetzen zituztela. Testigantza horiek «zur eta lur» utzi dituzte egileak, baita irakurleak ere. Izan ere, nahiz eta azken urteetan hainbat haurrek eta gaztek «Halloween»-ekin lotzen dituzten praktika horiek, XX. mendearen erdialdeko haurrek ezezaguna zuten hitz hori. Halaber, elementu antzekoak zituen festak. Anuntxi Aranaren hitzei jarraiki, egileek Irlandan eta Europako hainbat herrialdetan kokatzen dute kuiak hustearen ohituraren jatorria.

Euskal Herrian eta Europan gertatzen zen ospakizun hori bi elementurekin lotzen dute autoreek: heriotza eta beldurra. Festa horrek lotura zuzena zuen heriotzarekin; piztutako kandela horiek purgatorioan geratzen ziren arimek zuzenduta zeuden. Garai horretako testuinguruan kokatzen gaitu ikerketak. Heriotza oso presente zegoen egunerokotasunean, jendea etxean hiltzen baitzen. Heriotzaren bueltan hainbat erritu zeuden, ongi azaldu zuen William Douglas-ek *Muerte en Murelaga* lan entzutetsuan. Douglasek heriotza-errituen bidez gizartearen mailaketa soziala eta elkarbizitza aztertu zituen XX. mendearen lehen erdialdean. Heriotzak garrantzia handia izan zuen herriaren bizitzan; pertsona bat hiltzean harreman-sareak indartu eta prozesu erritual oso bat martxan jartzen zen (gaubelak, hiletak, mezak, sepultura...). Rosario Encinas antropologoarentzat, heriotzaren irudia bizitzaren beraren mehatxu bezala uler daiteke, eta horren aurrean errituak dira defentsa-mekanismoak. Errituez gain, Douglasi jarraiki, Ozaitak eta Altunak sinesmen-sistemekin lotzen dute heriotzaren ulerkera; kristautasunaren eta beste sinesmenen arteko sinkretismoa azpimarratzen dute. Sinesmen horien adibide dira, heriotza igartzeko gertakizunak (gauetz oilarrak abestea, txakurrak iluntasunean zaunkaka...); edota bestelako sinesmenak: hildakoaren koltxoia erretzearen beharra hildakoaren arima etxera ez itzultzeko, edo pertsona bat hiltzean leihoak ireki edo teila bat mugitzea arimak alde egiteko. Adibide horiekin, eta arimek egutegian egun seinatua izatearekin,

autoreek argi eta garbi uzten dute garai batean behintzat arimek bizitza zutelako sinesmena nagusi zela. Arimen inguruko kontakizunak beldurrarekin lotuta zeuden. Ikerketako hizlariak aitortzen dute elizak sarritan ikararen bidez ezartzen zituela hainbat sinesmen. Elizak bizitzaren inguruko kontrol soziala zuela azpimarratzen dute Altunak eta Ozaitak. Arimek, baita kalabazek ere, beldurra pizten zuten.

Baina non du jatorria festa horrek? Arestian adierazi den bezala Europako hainbat herrialdetan ospatzen zen. Autoreek sinkretismoaren ideiarekin lotzen dute; kristautasunaren eta beste sinesmen batzuen arteko nahasketaren ondorio da. Antzina lurraren eta eguzkiaren egutegiak nagusi ziren. Eguzkiaren egutegiaren adibide dira neguko edo udako solstizioak. Egileen arabera antolaketa hori ezarrita zegoen nekazari-kulturetan. Artzaintzan oinarritutako kulturetan lurraren egutegiak indarra zuen. Frazer antropologo klasikoaren hitzei jarraituz, zelten kulturetan egutegiak abeltzaintzarekin lotura handia zuen; urtea bitan banatzen zuten, bi egun mugarri izanik: maiatzaren lehena (ardiak mendira eramateko data) eta azaroaren lehena (menditik bueltan ekartzekoa). Azaroaren bata Irlandako Samhain festaren gakoa ere bada. Horrek udaren amaiera adierazten zuen, eta aipatutako ohitura zelta horren ondorioa zen. Altunak eta Ozaitak adierazten dute irlandarrek ere urtea bitan banatzen zutela, uda eta negua. Urriaren 31 mugarria zen, neguaren hasiera, «urteko aldi hilaren hasiera», hain zuzen ere. Gau horrek «ez-denbora» bat adierazten zuen, tarteko denbora bat, ez uda ez negua. Tarte horretan arimak etxeetara itzultzen zirela uste zen; horregatik, ohikoa omen zen horiei janaria eskaintzea, besteak beste. Aipatutako sinesmen horiek eraldaketa-prozesua jasango dute kristautasunaren zabalpenarekin batera: kristautasunak bere egingo ditu hainbat jai. Urriaren 31 kristau martiriaren egun bihurtu zen, eta ondoren santu guztien eguna, ingelesez «All's hallow's eve». Izendapen horrek izena emango dio ingeles eta irlandar etorkinek XIX. mendearen hasieran Ipar Ameriketara eramandako Halloween ospakizunari. Festa hori kultur nahasketen ondorio izango da, bai aipatutako etorkin horiena bai eremu ezberdinetako esklaboena. Bi mende horietan zehar, Halloween ospakizuna asko aldatu dela aitortzen dute egileek; kultur ekoizpenek eta sistema ekonomikoak horren hedapena ahalbidetu dute kontsumoari estuki lotuta.

Euskal Herriko markoari erreparatuta, Altunak eta Ozaitak neguko jaien baitan kokatzen dute Domu Santu eguna. Jai horien adierazle komuna dira eske-errondak (ikus ditzagun bestela Gabon Gauean, Santa Agendan, Inauterietan etab. egin ohi direnak). Autoreentzat eske-erronda horiek herriko taldetasuna indartzeko balio zuten, baina baita igarotze-erritu moduan ere. Izan ere, haurrekin lotzen dira praktika horiek, eta eske-erronden bidez haurrak izateari utzi eta helduarorako sarbide ziren. Domu Santuko eske-errondetan ikus daitekeen bezala, autoreek haurrak eta gazteak protagonistak direla diote, etxez etxe eskean aritu ohi direnak.

Testuinguru historiko kulturala argituta, autoreek egun Euskal Herriko txoko ezberdinetan gertatutako urriaren 31ko festaren susperraldia aztertu dute. Alde batetik, Ipar Ameriketako Halloween festaren hedapena nabarmentzen dute, gure herri eta hirietan azken urteetan indarra hartu izan duena. Zabalpen horretan zenbait eragileren papera aztertzen dute: ingeles-eskolak (ingelasa ikastearekin batera oso ohikoa da kulturaren bestelako ekarpena egitea); aisialdiko taldeak (ondo pasatzeko

asmoz erabili izan dute jai); telebista (marrazki bizidunak emititzen dituzten kate estatubatuarrak); Halloween paisaia (esate baterako, komertzioek areagotu duten Halloweenekin lotutako dekorazioa)... Horrez gain, egileek azpimarratzen dute egun merkataritzak gure egutegia antolatzeke duen ahalmena (San Valentín, Aitarene eguna, Black Friday...). Horrek guztiak Arimen Gauaren ospakizunean ekarri dituen bi joera aztertzen dituzte Ozaitak eta Altunak: sekularizazioa eta heriotzaren tabua. Batetik, gure gizarteak jasandako sekularizazioaren ondorioz, ikerlanean egindako elkarrizketetan, antropologoen nabarmendu dute jadanik haurrek ez dutela arimekin lotzen festa; «arimarik gabeko arima gaua» bihurtu da. Bestetik, heriotzak eguneroko bizitzan tokia galdu du, tabu bihurtu da. Isiltasunaren bidez agertzen da elkarrizketatutako haurrengan. Autoreek galdera hauek luzatzen dizkigute: «Ez ote da izango heriotza desagerrarazi nahi dugulako? Erre, erraustu.. gure bizitzetatik aparte uzteko?».

XXI. mendearen hasieran jai horrek hainbat forma hartu ditu. Ikerketan, horiek deskribatuko dituzte. Adibidez, kaleetako Halloween festak eta iluntzeko eskeerrondak ugaritu egin dira Estatu Batuetako ereduari jarraiki. Haurrek beldurrezko mozorroak jantzi eta ateetako txirrinak jotzen dituzte zenbait etxetan. Horretarako esaera ezberdinak erabili ohi dituzte («¿Truco o trato?», «Saria ala ziria?», «Halloween da, goxokirik ematen?»...). Jai horren beste forma batzuk, Arimen Gaua eta Gau Beltza izenekin berriz ere ospatzen hasi dira herri batzuetan. Gau Beltzean arimen ordezkariak eta iluntasunak hartu du garrantzia. Iluntasunarekin batera, kale-animazioak, haurrentzako ekimenak, dantzaldiak, musika... elementu gakoak dira jai horretan.

Haurrak eta kalabazak dira protagonista festan. Haurrek aurpegiak margotu, mozorrotu eta eske-errondak egiten dituzte kaleetan zehar. Autoreen arabera, kaleetan euren presentziarekin tradizio berria sortu dute. Kalabazei dagokienez, esanahi askotariko elementuak dira. Halloweenen ikur bihurtu dira, baina helduentzat kontsumoaren eta kultura estatubatuarraren ikur ere badira. Egileek adierazten dute horren aurrean jarrera ezkorra daudela, bertako kulturaren mehatxatzaile bezala hartzen direlako. Horrelako helduen aipuak jaso izan dituzte: «Espantoso, ez da tradizioa, ez zaigu gustatzen» (Altuna eta Ozaita, 2018:120). Halaber, Altuna eta Ozaitaren aburuz, inflexio-une bat gertatu da festa berrien susperraldiaren ondorioz. Aipatutako Arimen Gauaren eta Gau Beltzaren agerpen berriekin batera, kalabazaren ikurra euskal tradizioarekin lotzen hasi da. Joera horrekin batera euskarak presentzia handiago hartu du festan, eta euskarazko esamoldeak erabiltzeari bultzada eman zaio: «Xanguli, manduli, kikirrikii... gozokiak eman guri!». Tradizio berriek eta tradizio zaharrek autoreak tradizioaren inguruan hausnartzera eramaten dituzte, esate baterako tradizio asmatuen bizitasunaren eta kontraesanen inguruan:

Tradizio asmatuak dira egungo Gau Beltza edo Arimen Gauaren ospakizunak. Duela 80-100 urte burutzen zen jolasa erabiltzen da: kalabazekin iluntzean izutzeko txantxa. Baina jolas horrek ez du zerikusirik gaurkoarekin. Sinbolo hori erabiltzen da euskal kulturekin lotzeko, arbasoekin, naturarekin, eta helduentzat garrantzitsuak diren zenbait balio zabaltzeko. Bestelako ideiekin munduan eta gurean zabaltzen ari den jai forma bati aurre egiteko. Bide horretan sakontzen jarraitzea interesgarria

izan daiteke. Baina, betiere, ahaztu gabe jai hauen protagonistak haurrak direla eta haiei dagokiela erritu hauen antolaketa eta ospakizunean ahots nagusia edukitzea (Altuna eta Ozaita, 2018: 130).

Festa horri erreparatzeko autoreek bi aldagairi ere arreta jarri diete: adinari eta generoari. Alde batetik, arestian aipatu denez, haurrak protagonista izanik, autoreek haurtzaroaren inguruan hausnartzen dute: zer da haurra izatea gure gizartean? Beti izan al da horrela? Kategoria horrek garai eta testuinguru kulturalaren arabera balio eta ezaugarri ezberdinak izan dituela baieztatzen dute. Behin haurtzaroaren egoera aztertuta, beste galdera batzuk plazaratzen dituzte: Zer-nolako agentzia dute haurrek festa hauetan? Euren kabuz antolatzeke ahalmena dute? Zer erresistentziarekin topatzen dira? Haurren parte hartzea baldintzatuta dagoela adierazten dute, bai helduek ezartzen duten kontrolagatik bai hauen gidaritzagatik. Autoreek argi eta garbi ikusten dute ospakizun hauek haurrek osatu beharko dituztela, eta helduek agentzia aitortu beharko dietela. Bestalde, generoari dagokionez, 80 urteren bueltako pertsonen narrazioetan, nabarmendu daiteke eske-errondetan mutilak zirela protagonista. Egungo festetan gauzak aldatu badira ere, autoreek hainbat elementu mantendu direla esaten dute, esate baterako, egun ere mutila izatearekin lotzen dute bihurri-rola. Jai horretan ere genero-rolak errepikatzen direla azaltzen du ikerlanak, eta gaian sakontzeko gakoak ematen ditu.

Aztertutako elementu guztiez gain, lanak amaieran festa honetan biltzen diren objektuei erreparatzen die: argia, kalabazak, mozorroak, gozokiak, espazioa, soinua... Elementu horiek ere festaren aktore sozial garrantzitsuak direla ondorioztatzen dute Ozaitak eta Altunak, «Denek batera sortzen dute giro berezia» (Altuna eta Ozaita, 2018:173).

Amaitzeko esan dezakegu lan honek urriaren 31ko festaren hainbat alderdi jasotzen dituela. Ikuspegi antropologikotik aztertzen du jaiak, era ulergarri eta irakurterrazean. Edozein izan daiteke irakurlea. Elkarrizketatutakoen hitzak hainbat teoria antropologikorekin eta bibliografia aberatsarekin josten dituzte autoreek, irakurlea festan bertan murgilduta egotera sentiarazi arte. Liburu interesgarri baten aurrean gaudela esan dezakegu; egileek asmatu egin dute eduki eta idazketa estiloan. Egundak Halloween edo Arimen Gauak sorrarazten dizkigun galderei erantzuna emateko baliagarria da, bai festa beste modu batean begiratzeko bai festa era kontziente batean eraikitzeke, betiere haurrek protagonista aktiboak izan behar dutela ahaztu gabe.

Irantzu Fernandez Rodriguez

